


• MATTIN •



Euskara epaitegietan

• JUAN SAN MARTIN •
[EUSKALTZAINA]

Irailaren 26an, Euskaltzaindiak antolatu zituen hitzaldi-
tan aurkeztu nuen *Hizkuntza, hiztunen giza-eskubideen arabera* zeritzan txostena, ONU, Unesco eta Euskaltzaindiaren arautegian oinarriturik. Gure erakunde honen arautegia 1976. urteko otsailaren 26an Erret-Dekretuz onartua izan zen (ikus *Decreto 573/1976, de 26 de febrero*). Eta horien arabera, euskararen alde nola joka adieraziz.

Euskararen lehen aldiz izan zuen ofizialtasuna, Nafarroako erresumaz gainera, Ifarraldean gertatu zela aditzera eman nuen. Eta ez edonolako ofizialtasuna, epaitegietan erabili beharrezkoa baizik. Egun, han ez ezik hemen ere epaitegietan euskarari sarrera ematea nekeza zaigu. Badu Jaurilaritzak zereginik.

Frantziako Estatuaren barnean XVI. mende hasieran erabaki zen pertsona bakoitza bere hizkuntzan epaitu beharra. Bazirudien behingoz bide egokia hartu zela, baina ez zuen asko iraun eta geroztik hango hertsitasuna nabarmenagoa da.

Frantziako Errege Luis XII.ak, 1510. urteko ekainean, Ordenantza bidez agindu zuen epaiketa guztietan, biztanle bakoitzari bere hizkuntzan egitea. Erabaki hori, haren ondorengo Franzisko lehenengoak, 1531. urtean berretsi zuen. Baina, zortzi urte geroago ezabatuz suntsitu zen. Euskararekin batean Frantzia guziko hizkuntzen etorkizuna larritasun ilunetara bultzatuz.

Horren berri ikus Henriette Walter-ek André Martinet euskaltzain ohorezkoaren hitzurrez argitaratu zuen tesia: *«L'Aventure des Langues en Occident: leur origine, leur histoire, leur géographie»*. Paris, 1994. Bere gaztelera izulpena Berta eta Mercedes Corral ahizperi zor diegu, *La aventura de las lenguas de Occidente: Su origen, su historia y su geografía* izenburuz 1997an Espasa

Calpe SA argitaletxeak Madrilen plazaratua. Eta arestian aipatu dudanak, liburu honen 247-249 eta 265-271. orrialdeetan dioena du lekuko.

Hala ere, Frantzia aldeko Euskal Herriak bere Ifar eta Ekialdetik gaskoina eta biarnesa zituen inguruko eta hauek irentsi arteko iraupena izan zuen euskarak frantsesarekin harreman zuzena eduki arte.

Luis XII.aren Ordenantza hura bazterretetik gertakaririk beltzera Bordelen ezagutu zen 1609an. Pierre Lancre epaile zelarik, frantsesik ez zekiten ehunen bat euskaldun sorgintzat epaitzean. Ulertzen ez zuten hizkuntzan zigorperaturik: «oui» (bai), esatera behartuz eta sutan errez heriotzara eraman arte. Gezurra badirudi ere, hala gertatu zen.

Sineskera zaharretan bai omen ziren sorginak; hortaz zenbait berri eman nuen *Sorginak Donibanez* artikuluan, ikus nire *Landuz* (1983) liburuen 26-31. orrialdeetan. Zehaztasun gehiagoz ikus dezakegu Gustav Henningsen-en *El abogado de las brujas. Brujería vasca e Inquisición española* liburuan. Gaur ordea, badakigu fisikoki sorginik inoiz ez dela izan. Eta inork sorginkerik izatekotan, inkisitoreek eta Pierre Lancre bezalakoek, sorginkeria gaiztakeriz beraien lepoan zeramaten.

Gure Nikolas Ormaetxea *Orixe* zenak itzuli zuen ONUk 1948ko abenduaren 10ean azaldu zuen Giza-eskubideen alderako agiri hura, 1949an *Alderdi* aldizkarian argitaratzeko, *Giza-eskubide guzien Aitor-kizuna* izenburuz. Testu bera, 1968an, Galiziako O Facho kultur elkarteak aprobetxatu zuen, J.A. Gonzalez Casanova irakaslearen hitzurrez, Espainiako lau hizkuntzetan argitaratzeko, eta edizio hura Franco-ren Gobernuak bahitu zuen.

ONUren agiri hura gehien bultzatu zuenetakoa, aita Probentzakoa eta ama Euskal Herrikoa zituen Re-

né Cassin baionar jurista izan zen, bere lanen eskergarri 1968an Bake Nobel saria jaso zuena.

Hala ere, 1992an Europako hizkuntz gutituen alde Estraburgoko Kontseiluan aurkeztu zen *Eurogutun* hura oraindik onartzeke dago! Frantziak betoa jarri ziolako. Hortaz, ikus 1998ko urriaren 24an EGUNKARIA honetan argitaratu nuen artikulua. Baina, Frantziako Estatu ez ote zan ba izan ONUren agiri hura bultzatu zuenetakoa?

Hegoaldean ordea, bi hizkuntzok ofizial izendatuak izanarren, epaitegietan euskarari sarrera emateko eragozpenak ditugu. Nola daiteke?

Gure jokabideok aurrera eraman ahal izateko, oroi bide ziur bezain zehatzak eskaintzen dizkigula Leah Levin-en *Derechos humanos preguntas y respuestas* liburuak, igaz Bilbon *Bakeaz* deritzan Ediciones Unesco delakoak argitaratua. Guzia interesgarria izanarren, hemen diogunari buruzkoan, aski zaigu 82-83 eta 94. orrialdeak irakurtzea.

Arrazioa ez dago txikiagoa edo handiagoa izatean. Gu ere munduaren zati bat garenez, naturak eman digun unibertsaltasuna bakoitzak beretik darama eta besteak ukatu gabe, hein batean unibertsalagoak gara gizarte orekari eutsiz jarraitzen badugu.

Horregatik, nekeza egiten zaigu bakoitza berari ulerterrezagoa zaion hizkuntzan ez epaitzea. Giza-eskubideen arabera, hori ez baita zilegi.

Bakeari buruz hitz asko egiten da, baina lortu ahal genezake hizkuntza txikiagoak ukatu? Bakerik nahi badugu, guziok elkar errespetatu beharra dugu, naturalez eman diguna bizirik iraunarazteko eskubidea emanaz eta laguntzak eskainiz. Eta hortarako legezkoena da epaitegietan bakoitzak bere burua onduen defendatu ahal izateko egokien zaion hizkuntzaz baliatzea.

LORE ERRIONDO

34. Durango



Aurten ere iritsi zaigu azoka, hogeita hamalagarrenez, Nafarroa protagonistatzat hartu dutelarik. Benetako protagonismoa baina, jendetzak, barru eta kanpoko saltokiek, liburu eta diskoek, aurkezpenek eta honen inguruan antolatzen diren ekitaldiek dute. Etxera itzulitakoan aldiz protagonista nagusia, kobratu berri dugun

soldadari eman diogun astinaldia eta erositakoak irakurri eta entzun artean non jarri ez dakigula eratzten duten dorre modernista.

Guztientzat ez da berdina ordea. Batzuentzat Durango agurtoki da: aupa! bati, zelan? besteari, aspaldiko! hurrenari, keinu eta beha bertara hurbiltzen diren euskal VIpei... eta bide batez agenda, afari, hitzordu eta horrelakoez bete; izan ere, egunerokotasunaren murgilean mugitzerik ere ez dugun honetan, topaleku bilakatzen zaigu Durango.

Beste batzuek, askotan liburu dendetara hurbiltzeko astirik ere hartzen ez dugula eta, bide batez uzta jaso nahi. Baina ez da batere komenigarria. Gurean behintzat, garai batean, euskaraz argitaratzen zen guztia edo ia guztia erosteko ohitura zegoen, eta argitaratzen zena asko ez zenez, ez zuen desorekarik sortzen, baina ohitura hori gureganatu eta berari jarraitzeko joera izanik, ene!, 400 liburu eta 80 disko berri argitaratu diren honetan ezin guztiak hartu, baina Olentzoreri ez bezala neroni egin diot zerrenda: EGUNKARIAko egutegi eta agenda, Seaskakoa eta Argiakoa ere hartu behar; Joxe Azurmendiaren *Euskal Herria Krisian*, Joseba Sarrionandiaren *Hau da ene ondasun guztia*, Anjel Lertxundiren *Gogo zubi*, Lertxundi eta Antton Olariagaren *Nire kule-roak*, Olariaga eta Andoni Egañaren *Zaudete geldi pixka batean*, Juan Kruz Igerabideren mordo bat —saiatuko naiz ez guztiak hartzeko adorea pilatzen—, Arantxa Iturberen *Ai, ama!*. Ai ama! bai nik, herenak ere aipatu ez eta zutabea bete!

Itolarria sortu dit honek, itolarria ere iaz 120.000 lagun hurbildu zirela jakinik aurten ez direla gutxiago izango pentsatzeak; itolarria 240 saltoki ofizial izanik ere, hurbiltzea kosta egingo zaidala pentsatzeak. Zuek behintzat, azoka on pasa!

...kornerra

MIKEL ELORZA

Subkontzientea

■ Gure bi politika gizonak, gutxienez, azpimarratu zuten, ETArekin komunikatuaren berri izan zutenean, hain zuzen Jatsuko Xabierren egunean hautsia izanen zela su-etena, gure herriaren defentsan jardundakoaren egunean... Marka iruditu zitzaidan biek horretan bat egitea; pentsatu nuen Jon Juaristi eta besteri motiborik ematen diegula hainbat gauza esateko (motiborik gabe esango dituzte, hori ere egia da). Subkontzientea, munstro txo horrek, ez du amore ematen. Ez zitzaien euskararen nazioarteko eguna etorri gogora, ez ziren Durangoko Azokarekin akordatu.

Ez dira, bestalde, ETArekin erabakiaren aurrean jartzeko nortasuna duten kontuak. Euskararen nazioarteko egunarena, gainera, berriegia da inor akordatzeko. Oraindik gizar-tean mamitu gabe dago: Arabako agintari PP-UKoek, kasu, ez dute Hagako Nazioarteko Auzitegira jo egunaren aurka.